

**MARIO SARSAK, BIDAIARI ETA MEDIKUAK, DATORREN OSTIRALEAN
HITZALDI-SOLASALDIA ESKAINIKO DU KONGO IBAITIK ZEHAR
BURUTURIKO BERE BIDAIARI BURUZ**

- Ekitaldia datorren ostiralean, maiatzaren 14ean, arratsaldeko 20.00etan ospatuko da **Gasteizko Aldabe Gizarte Etxean**.
- Sarsak, Manuel Iradier Elkarte Afrikanistako (AAMI) kideak, munduko ibairik misterioetsuenetarikoan buruturiko baidaiaren inguruko bere esperientzien berri emango du.

Gasteizen, 2010eko maiatzaren 10ean. - Mario Sarsak, bidaiari, mediku eta Manuel Iradier Elkarte Afrikanistako kidea bere sorreratik, datorren ostiralean, maiatzaren 14ean, arratsaldeko 20.00etan Gasteizko Aldabe Gizarte Etxean hitzaldi-solasaldi bat eskainiko du Afrikako Kongo ibaian barrena buruturiko baidaiari buruz.

Sarsak afrikar kontinentearen txoko guztiak ezagutzen ditu eta oraingoan bertaratutakoei munduko ibairik misterioetsuenetariko batetik nabigatzeak sortutako esperientzien berri emango die, Kongo ibaia, alegia, Joseph Conrad-ek “ilunpeetako bihotza” –tzat jo zuena. Bere kontakizunak Gasteizera bertako herritarren handitasuna eta mendeetan zehar bizirauten duen ibaiaren indarra ekarriko du. Mario Sarsak dioenaren arabera, “1.700 km. nabigarrien barrena, bizitzak bizi eta basati dabil, hori dela eta batzuetan liluragarria, epela eta otzana bada ere; besteetan, basati eta eroa ere izan daiteke”. Kongo ibaia komunikazio biderik handiena eta bakarra da, “herrialde aztoratu eta arriskuez beterikoan”, dio bidaiariak.

Hitzaldi hau Manuel Iradier Elkarte Afrikanistak (AAMI) afrikar lurraldearen sentsibilizaziorako ekintzen artean kokaturik dago.